

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

247/2020 Foru Agindua, ekainaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen baita 243/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, Covid-19aren ondorioz eteten dituen baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak edo antzeko beste batzuk gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako epeak.

2020ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 100. zenbakian, argitara eman zen 243/2020 Foru Agindua, maiatzaren 27koa, zeinaren bidez Covid-19aren ondorioz eteten baitira baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak edo antzekoak gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako epeak.

Haren xedapen zatiak aginduan arautzen den xedea ezartzen duen arren, azalpen zatiak xedapen zatian biltzen diren interpretazio arauak ezarri nahi ditu.

Bada, azalpen zati horretan badago argipen bat zuzena ez dena eta nahasgarria gerta daitekeena, eta, hori dela eta, komeni da hura aldatzea foru agindua behar bezala aplikatzeko.

Horrexegatik, foru agindua azalpen zatian aldatzen da, jarraian adierazten den moduan.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Maiatzaren 27ko 243/2020 Foru Aginduan, zeinaren bidez Covid-19aren ondorioz eteten baitira baldintzak betetzearekin nahiz pizgarri fiskalak edo zergadunari onuragarri zaizkion araubideak edo antzeko beste batzuk gozatzearekin edo kontsolidatzearekin lotutako epeak, azalpen zatia aldatzen da jarraian zehazten den eran:

– *Hau dioen tokian:*

«Sozietateen gaineko zerga: iraupen luzeko inbertsioa duten proiektuetan, zergaren foru arauak 67.4 artikuluan jasotako hilaibeteko epea, kontratua formalizatzen denetik aurrera kontatua, inbertsioa ordaintetako egiten diren neurrian eta haien zentzuzkoan gauzatzat hartzeko aukera Ogasun eta Finantza Departamentuari komunikatzeko jarritakoa.»

– *Hau esan behar du:*

«Sozietateen gaineko zerga:

– Zergaldiko 90 eguneko konputua, zergaren foru arauko 14.1.a) artikuluan ondare sozietatetzat hartzeko aurreikusten dena.

– Iraupen luzeko inbertsioa duten proiektuetan, zergaren foru arauak 67.4 artikuluan jasotako hilaibeteko epea, kontratua formalizatzen denetik aurrera kontatua, inbertsioa ordaintetako

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 247/2020 de 2 de junio por la que se modifica la Orden Foral 243/2020, de 27 de mayo, por la que se suspenden plazos relativos al cumplimiento de requisitos, al disfrute o a la consolidación de beneficios fiscales o regímenes beneficiosos para el contribuyente u otros análogos, como consecuencia del Covid-19.

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa número 100, de fecha 29 de mayo de 2020, se publicó la Orden Foral 243/2020, de 27 de mayo, por la que se suspenden plazos relativos al cumplimiento de requisitos, al disfrute o a la consolidación de beneficios fiscales o regímenes beneficiosos para el contribuyente u otros análogos, como consecuencia del Covid-19.

Sin perjuicio de que su parte dispositiva establece el objeto de la regulación contenida en la misma, la parte expositiva pretende establecer las reglas interpretativas que se incluyen en aquella.

Pues bien, en dicha parte expositiva se incluye una aclaración que no es correcta y que puede dar lugar a confusión, por lo que procede modificarla para una correcta aplicación de la orden foral.

Es por ello que se procede a modificar la orden foral en su parte expositiva en los términos que a continuación se indican.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único.

Se modifica la parte expositiva de la Orden Foral 243/2020, de 27 de mayo, por la que se suspenden plazos relativos al cumplimiento de requisitos, al disfrute o a la consolidación de beneficios fiscales o regímenes beneficiosos para el contribuyente u otros análogos, como consecuencia del Covid-19, en los términos siguientes:

– *Donde dice:*

«En el impuesto sobre sociedades, en proyectos de inversión de larga duración, el plazo de un mes desde la formalización del contrato previsto en el artículo 67.4 de la Norma Foral del Impuesto, para comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas la opción para entender realizada la inversión a medida que se efectúen los pagos y por la cuantía de éstos.»

– *Debe decir:*

«En el impuesto sobre sociedades:

– El cómputo de los 90 días del período impositivo, previsto en el artículo 14.1.a) de la Norma Foral del Impuesto, para la consideración de sociedad patrimonial.

– En proyectos de inversión de larga duración, el plazo de un mes desde la formalización del contrato previsto en el artículo 67.4 de la Norma Foral del Impuesto, para comunicar al De-

egiten diren neurrian eta haien zenbatekoan gauzatutzat hartzeko aukera Ogasun eta Finantza Departamentuari komunikatzeko jarritakoa.»

— *Hau dioen tokian:*

«Sozietateen gaineko zerga:

— Zergaren foru arauak 22.1.a) artikuluan jasotako sei hilabeteko epea, obligazioa amaitzen denetik aurrera kontatua, zordunen balizko kaudimengabezien ondorioz gertatzen diren kredituen narriaduragatik sortutako galerak kengarriak izateko jarritakoa.

— Zergaldiko 90 eguneko konputua, zergaren foru arauko 14.1.a) artikuluan ondare sozietatetzat hartzeko aurreikusten dena.»

— *Hau esan behar du:*

«Sozietateen gaineko zerga:

— Zergaren foru arauak 22.1.a) artikuluan jasotako sei hilabeteko epea, obligazioa amaitzen denetik aurrera kontatua, zordunen narriaduragatik sortutako galerak kengarriak izateko jarritakoa.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2020ko ekainaren 2a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(2479)

partamento de Hacienda y Finanzas la opción para entender realizada la inversión a medida que se efectúen los pagos y por la cuantía de éstos.»

— *Donde dice:*

«Impuesto sobre sociedades:

— El plazo de seis meses desde el vencimiento de la obligación, previsto en el artículo 22.1.a) de la Norma Foral del Impuesto, para que las pérdidas por deterioro de los créditos derivadas de las posibles insolvencias de los deudores o las deudoras sean deducibles.

— El cómputo de los 90 días del período impositivo, previsto en el artículo 14.1.a) de la Norma Foral del Impuesto, para la consideración de sociedad patrimonial.»

— *Debe decir:*

«Impuesto sobre sociedades:

— El plazo de seis meses desde el vencimiento de la obligación, previsto en el artículo 22.1.a) de la Norma Foral del Impuesto, para que las pérdidas por deterioro de los créditos derivadas de las posibles insolvencias de los deudores o las deudoras sean deducibles.»

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 2 de junio de 2020.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.

(2479)